

Zergatik oihukatzen du jendea

Behin Meher Babak hau galdetu zien bere ikasleei :

-Lagunek ernegaturik daudenean zergatik marru egiten diote elkarri?

Pixka bat hausnartu eta honela erantzun zioten:

-Lasaitasuna galtzen dugulako- esan zuen batek- eta horrexegatik marru egiten dugu.

-Baina zergatik oihukatu bestea hain hurbil dugunean? Galdetu zuen berriz Babak:

-Ezin zaio isilik hitz egin? Zergatik haserretzen zarenean hainbeste oihukatzen diozu?

Haiek beste hainbat erantzun eman zioten baina ez zuten Baba ase bete.

Azkenean hola azaldu zien:

-Bi lagun haserre daudenean beraien gogoak ikaragarri urruntzen dira elkarrengatik. Alde hori betetzeko oihukatu beharra izaten dute elkarri entzun araziko badiote. Zenbat eta ernegatuago orduan eta ozenkiago oihukatu beharko dute alde hori gainditzeko.

Gero Babak galdetu zuen:

-Zer gertatzen da bi lagun maitemintzen direnean?

Haiek ez diote elkarri oihi egiten baizik eta isilik mintzatzen dira. Zergatik? Gogoak oso gertu dutelako. Haien gogoen arteko distantzia laburra da.

Eta jarraitu zuen:

-Oraindik estuago maitemintzen direnean zer gertatzen da? Ez dute hitz egiten bakarrik xuxurlatzen dute, eta maitasunean hurbiltzen dira gehiago. Azkenean ez dute behar ezta xuxurlatu ere, begirada nahikoa dute elkar ulertzeko. Horren hurbil daude elkar maite dutenen gogoak.

Bukatzeke Babak:

Eztabaidatzen duzuenetan ez utzi zuen gogoak elkarrengandik urruntzen. Ez esan ezer urruntzea larrituko duenik. Bestela urruntasuna handituz joango da eta urrunegi ailegatzen bazarete itzultzeko bidea galduko duzue betiko.

Gustatzen zait adierazten dizulako oihukazen duzula pertsona horietatik urrun zaudelako.

Ane Arizmendarreta